

**TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA**

**3.- OSIÑAGA BAILARA 20 ZENBAKIKO ELIZALDE-ENEA BASERRIAN TEILATUA ERABERRITU ETA ATAURREA EGOKITZEKO OBREN AMAIERA. (Txos. EV 121\_21)**

XXXXXXXXXXXXXXXXX, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXn izenean, Elizalde-enea (Txintxua-enea) baserriaren Obra Berriaren adierazpen eskrituraren Minutaren kopia aurkezten du.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

- Obra amaierako dokumentazioa aztertu da eta Udal ordenantzan jasotakoarekin bat dator.
- 2021ko maiatzaren 31n, Udal teknikariak ikuskapena egin du eta egindako obrak, emandako udal baimenarekin bat datozela egiaztatu da.
- Ingurumen teknikariak hondakinen kudeaketari buruzko dokumentuak aztertu ditu eta bere oniritzia jaso da.
- Urbanizazio publikoan ez da kalterik antzeman.

**Proposamena:**

**Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:**

---

Osiñaga bailara 20 zenbakiko Elizalde-enea (Txintxua-enea) baserrian teilatua ordezkatzeko eta ataurreri lehen erabilerarako baimena ematea, honako baldintzekin:

- 1.- Hamar eguneko epean ogasunean alta emateko U-4 dokumentua aurkeztu beharko da Udalean.
  - 2.- Obra Berriaren Adierazpenaren eskritura aurkeztu beharko da Udalean hilabeteko epean.
  - 3.- Hondakinen kudeaketaren eta urbanizazioaren mantenu egokia bermatzearen inguruan jarritako abalak bueltatzea.
-